

ANAITASUNA

238. zenb.

1972.eko Uztailaren 15ekoa

Encarnación, 19. (Artetxu) - BILBAO-6
Teléfono 33 19 97 - Apartado 495



Askatasunaren aldeko mugimenduak

Askatasunak bere kondizioak ditu. Ba dira gure artean, gizona eta emakumea berez aske direla eta zirkunstantziarik gaitibatzaileenetan* ere barne askatasun bat gordetzen dutela diotenak. «Presondegian ere izan daiteke bat libre» esanen daukute.

Baina, irudipenezko edo ametsezko askatasun bat baino gehiago, beren bizitzan askatasun erreal bat nahi dutenek, askataunaren kondizioetatik hitz egiten daukute. Ba dakite hauek, teoriaz eta eskubide formalen mailan emakumea eta gizona libre direla onhartua egonagatik ere, bizitza errealean gaitibatuak* aurki daitezkeela eta aurkitu ere aurkitzen direla.

Ez dautzute hoiiek askatasunaz —edo askatasunari buruz— emana dagoen zerbaitez bezala hitz egingo. Askatasuna lortu egin behar da. Askatasunerako kondizioak lortzean dago kakoa. Kultura askatu —hobe askatzaile— bat egin behar dugu.

Honetaz jabetuak dira «Emakumearen askatasunaren aldeko mugimenduak» (Euskal Herrikoak?). Eta jabetuak direlako hasi dira emakumearen situazioa aztertzetik. Hori eginez gero, askatasunaren alde burruka planifikatu bat eraman ahal izateko.

MARGARET BENSTON-EN BOLIGRAFOZ

Aurreko artikuluan aditzera eman genituen mugimendu hauen helburu nagusi batzuk: * etxetik at* gizonezkoen kondizio beretan lan egitea, etxeko lana sozializatzea, haurren haziketa eta heziketaren erantzunkizuna, gurasoena bakarrik izan ordez, gizartearena ere izatea.

Helburu hauk* ez ziren, ordea, nolana hitan lortzekoak izango, interes asko baitzegoen kontra. Interes hauk aztertzen hasita, zera ikusten dugu, bi alderdi nagusitatik sortzen direla:

Emakumeek ordaindu gabe egiten dutena ordaindu behar izanez gero, aberastasunak gaur baino areago* banatu beharko lirakeke. Produkzio bideen jabe direnentzat oso probetxugarria da, senarrari ematen zaion lan-sariaz, senarraren lanindarra ezezik, etxean gelditu den emaztearena ere erostea.

Bigarren katea hemen dago: ea ekonomia, gizon guztiei —emakume guztiei— lana emateko haina* heda* daitekeen. Gerra ekonomiak emakume sail bat sartu zuen etxetik kanpoko lanetan, baina ez guztiak, ez eta gehienak ere. Ba dirudi, etxelana industrializatzean, lanpostuak ugarituko lirakekeela. Baina, industrializazio hori ez dute begi onez ikusten *status quo* delakoaren defendatzaileek. Gaur kapitalismo barnean sortu diren zerbitzu industriek ere ez diote lanindarraren hazkundeari aurre eman. Aitzitik,* etxelenetan subenplegu bat sortu besterik ez dute egin.

Situazioa hau den artean, emakumeek erreserbako eskulan izaten jarraituko dute.

Lantegietara berdintasun mailan sartzeak, etxelana kapitalizatzeke presio bat sortuko luke; baina, lantegietara sartzeko, gaur arte gerra garaian eman izan den

baino ekonomi hedadura* haundiago bat behar litzateke.

FAMILI ESKEMA ZAHARRA, ETA ESPERIENTZIA BERRIAK

Gainera, egitur* aldaketok direla eta, gaurko familiaren eskema* hautsia geldituko litzateke. Gaurko egitura sozio-ekonomiko-psikikoa horren kontra dago, ordea. Eta egitura neokapitalistok gauzak aldatu nahi ez izatea konprenigarria da, familiak kontsumoa estabilizatzeke duen eginkizunari, emakumea lanaren merkatutik at* edukitzeke, etxekoandreaaren mitoak duen indarra erantsen badiogu.

Bestalde, etxe produkzioa aldatzeke behar den guztia neokapitalismoaren pean egingo balitz ere, gizon-emakumeen harreman guztiak diruaren loturez estekatzea* besterik ez genduke egingo. Margaret Benston-ek dioenez, lehen ere aski* atomizatuak eta aislatuak aurkitzen garen mendebalde* honetan, ez gaude horrelako bakartade eta aislazio psikikoa bat jasan* ahal izateke tenorean.* Emakume horren eritziz, beldur honi zor zaio agian,* emakumearen askatasunaren aldeko mugimenduei eman zaie erantzun negatiboa.

Hau kontuan harturik, hurrengorako uzten dugu, elkar bizitzarako eta afektibitate bizitza bete batetarako gaur egiten ari diren esperientzien berri ematea.

JON eta KLAUDIO

daukute, **daukue**, digute
dautzute, **dautzue**, dizute
diogu, **dautsagu**
diote, **dautsoe**
gaude, **gagoz**
zaie, **jake**, zaiote
zaio, **jako**

ELIZA

Beasaingo San Martinen, euskarazko mezak direla eta

San Martin Loinaz Beasaingo hauzune bat da, eta bertako eliz zeregin eta betebeharra hiru frantziskanoren ardurapean dago. Hauzo honetako mezak direla eta, Andoni Sarriegi jaunak zenbait artikulua argitaratu eman izan ditu ZERUKO ARGIA astekarrian, euskal hizkuntza elizkizunetan gehiago erabiltzeke eskatu eta argumentatuz.

Sarriegi jaunari erantzunez, «En torno a una oportuna contestación» izeneko artikuluxka bat irakurri izan dogu «La Voz de España» egunkarian (ekaineko* 6koan), Beasaingo López kronikagileak sinaturik.*

López jaunaren argudioaren arrazoirik funtsezkoenak, jarraiko hiru honeek dituzu:

— euskara derrigorrean eta larregian* elizkizunetan erabiltzeak, jende asko elizatik urrunduta baino ez dau egin.

— fraileen zeregina, mundu guztiarentzat —inor ulertu ezinik utzi gabe— berba egitea da, ezelango* Babel berririk sortu barik.

— ba dira beste arazo batzuk gure artean, euskararen hainako* lodi eta garrantzitsuak.

López jaunak, bistan dago, gure arazo honi bere «de facto» izatea baino ezin dautso ikusi, «de facto» hori ikutu eta aldatu ezina balitz bezala. Guk, oster, egoera hori «de jure» aldatu beharrezkoa dala ikusten dogu.

Ondarroa

«Kresala» gure elkarrearen izena berriro ere hortik zehar apur bat entzuten hasia da. Eibar, Elgoibar eta Tolosan, «Mariñelak» izeneko euskarazko antzerkia eman du. Beste herri batzuetatik ere deituak izan direla jakin dugu.

Horrekin amaitzen duenean, beste zerbait gertatuko duelakoan gaude. Aurrera beti!

Hala ere, antzerkia eta kantua «Kresala»ren zati bat baino ez dira. Horrez gainera ba ditu bere babespean, dantza, txistu eta kitarra ikasten dutenak, gauzko alfabetatze, zine forum, hitzaldi antolatzaile taldea eta ikastola.

Ikastolari dagokionez, orri bat eskuratu dugu, zehaztasun hau dakartzana:

— Aurten hiru urte betetzen dituzten umeak dira deituak.

— Ikastola horretara bidaltzea erabakitzen duenak, «Enseñanza General Básica» ere bertan egiteko asmoarekin sartu beharko du umea.

— Nahiz eta diru neurri bat izendatuta egon, hau ez da oztopo izango, umea ikastolan sartzeko.

— Herri eskola denez gero, atek denentzat daude zabalik.

ONDARRUTARRA

Castro Algerian

Lerro hauk* idazterakoan, Fidel Castro Afrika eta Europako herri sozialistak bisitatzen ari da. Bidaje hau —agian* herri-buruzagi batek inoiz egindako ibilaldirik luzeena— Fidelen beraren luzeena da behintzat.

Bisita hauek interes handia sortu dute nola Europan hala Afrikan, batez ere Fidelen egonaldiaren harian jazo* litezkeen gertakizunak gatik. Berri guti heltzen zaiku Cubatik eta are* gutiago Algeriatik, eta, beraz, interesgarri dateke* Fidel Castrok Algeriako herriari egindako bisitaz mintzatzea.

Hamar egun luze izan dira, Fidelek lan ritmo harrigarriaz bete dituenak. Egun hauetan 5.000 km. egin ditu, gehienak kotxean; eta, 5.000 km. hauen hedaduran,* Boumedian Algeriako lehendakariak, hango herriak askatasuna lortu zuenez geroztik egin duen bide emankorra ikus erazi dio Castrori.

Cherchell-eko ur berdeetatik oasis hondartsu eta eguzkitsuetara, Kabiliako eskoletatik Hassi Messaoud-eko putzuetako lantegietara, Arzew-eko base petrokimikora edo Skikda-ko gas naturala likuatzeko fabriketara, Fidelek azaldu duen irudia, duela zenbait* urte Che Guevarak Espainian agertu zuena da: uniforme berdea, apaindu gabeko bizarra, kanpainiako bota lodiak, harma bat gerrian eta, batez ere, lan ritmo paregabe eta pairagaitza,* kotxean lo eginez, egun berean eta are* goiz berean zenbait lantokitan hirugarren munduko herri sozialisten solidaritatearen beharra esplikatuz, herriarekin bat, herriaren artean.

Berak inauguratu zituen Mesdar Skikda-ko olioduktoa, 630 kilometrotakoa (Algeriako laugarrena), Remel Skikda-ko gaseoduktoa, 577 kilometrotakoa, El Hadjar-eko altzairu ola,* Annabako fosfatuzko abono fabrika. Leku hauetan eta beste askotan izan da Fidel Algeriako herriaren lanaren lekuko.*

Eta egun emankor hauei buru emateko, Castrok, Algeriatik alde egiteko bezperan, 50.000 algeriar aurrean zituelarik, honela hitz egin zuen: «Herri iraultzaileek solidaritatezko garai berri bat bizi dute». Eta Boumedianek —egun hauetan, Algeriako herri osoa bezala, Fidelen lankide— abagadune* berberean esan zuen: «Cuba ez dago bakarrik burrukarako. Algeriarrak Afrikan, vietnamdarrak Asian eta beste zenbait* herri, nor bere eskualdean,* Cubaren aldamenen daude, helburu berberak bete zeko».

Algeriako herriak frogatu* nahi izan dio Fideli, iraultzak xedatutako* bideari darraiola.* Giro honetan, Algeriako iraultzaileentzat, Fidelen bisita guztiz garrantzitsua izan da: bi iraultzek aurkitu dute elkar.

AINHOA

Maribel Zamakonak bere lehen haurra

Maribel Zamakonak, emakune lirainak, ANAITASUNAREN zuzendari dan Anjel Zelaietaren emazteak, mutiko zoragarri bat izan dau, uztailaren* 8an. Zorionak!

Bertsolariak Oiartzunen

Uztailaren* 16an, goizeko hamaiketan, Oiartzungo lbargoin etxeko jardinetan, bertsolarien jaialdi bat izanen da. Parte hartuko duten bertsolariak: Mitxelena, Xalbador, Lizaso, Mattin, Garmendia, Lazkao Txiki, Igarzabal eta Lazkano. Sarrera 50 pezeta. (Arbelaitz).

Euskal disko berri bat Baxenabarren

Eñaut Etxamendi eta Eñaut Larralderen lehen diskoak ukan duen arrakasta* ba dakigu. Aurten saldu diren euskal diskoen artean, gehien agertu da. Harentzat izan da ere, Baionan antolatu duten 1971.eko Euskal Diskoaren saria. Euskal Herrian, bai eta Californian, Nevadan, Idahon eta beste toki aintzetzan,* poliki saltzen ari da. Egileek bigarren diskoa oraintxe ager arazi daukute. «Tiki-Taka» du izena.

Lau kantu ezin ederragoak ditu: «Tiki-Taka», «Argi zirrinta», «Nexkato bat», eta «Zato gurekin» edo Ameriketaren diren euskaldunei etxeratzeko deia. Bigarren disko honetan, gure betiko Etxamendi entzuten dugu, haren poesia eta doinu ederrekin, gure lurraren oihartzuna* bezala. Euskal gogoia ezagutzen eta maite duten guztiak onhartuko dute bigarren disko hau. Dudarik gabe, arrakasta handia izanen duela. (Berrizaleak).

Mallabi aldeko eskolak bateratzen

Hauzo eskola txikiak kenduta, Mallabi aldeko eskola guztiak batera joan behar izango dabe datorren ikastaroan. Herriko gazteek, hala ere, eskari bi egin nahi litukee: bata, eskola nagusi horretarako autobusak jartzea; eta bestea, hauzo eskola horretarako bat harturik, gazteentzako batzar leku bat antolatzea. Danon ustea da, eskari bi horreek oraingo honetan onhartuak izango dira. (Txurruka).

Okerrak zuzentzen

ANAITASUNAREN 235. zenbakian, 4. orrialdean eta «Euskaldungoa» sailean, «Jaunhartzek» izenarekin emandako berrian, Bilboko Espartero kaleko San Frantzisko Xabier elizan jazoriko* arazo bat agertu zan. Berri hau hobeto jakin ondoren, esan egin behar dugu, eliza horretako apaiz batek eman ebala meza, Manuel Ardantzak alegia,* eta laguntzaile Markinako Jose M. Rementería izan zala.

O H A R R A

Aldizkari honetan lan egiten dugunok opor eginen dugu hilabete honen bigarren hamabostaldian. Beraz, uztailaren 30eko ANAITASUNA ez da argitara emango.

ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Encarnación 19, Bilbao-6.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irrarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

KULTUR BIZITZA**Ekainean eman diren mintzaldi batzuk**

«Euskal historia», Eugenio Goienetxek, Angelun.* «El medioevo y la comarca del Bidasoa», Julio Caro Barojak, Irunen. «La educación de los hijos», Aita Bereziartuak, Anoetan (euskaraz eta erdaraz). «Exigencias de la primera comunión», Felix Garitanok, Tolosan (ikastolan). «John Borman-en 'Leo' filmea», Benito Ansolak, Motrikun.

Antonio Elorza, «Real Sociedad de los Amigos del País»eko bazkide

Antonio Elorza —Alcalá de Henaresen, hango «Universidad Complutense» dalakoan «Ciencias Políticas» irakasten ari dana— «Real Sociedad de los Amigos del País»eko bazkide egin berri da. Sarrerako hitzaldia, «Las corrientes políticas en Vizcaya» gaiari buruz izan da, kapitalismoa, sozialismoa, nazionalismoa... ikutuz.

Herri Jakintza, «Diario de Navarra» egunkariaren sail berria

Ekainaren* 22an hasirik, Herri Jakintza (Etnología y Folklore) izeneko sail berri bati heldu dautso Iruineko «Diario de Navarra» egunkariak. Ikus, egun haretako alean zer dinoskun sail berri horren arduraduna dan Satrustegi jaunak:

«Azkeneko 'Euskal orrian' adierazten genuen bezala, etnologiarri eta euskal gaiei idekia egongo den sail berri bat hasten dugu gaur. Lanbide honetan egiten dena asko da gure artean; baina goi mailako aldizkarietan bakarrik zabaltzen dira orain arte lan hoik.* Herriak ezer gutti daki, goseak janarekin zerikusirik ez balu bezala.

Gure asmoa, beraz, ez da Herri Jakintza sakonki aztertzea; horretarako daude lehen esandako jakintsuen idazkiak. Azterketarako ez baina zabalkunderako izango dira gure lerroak; han hemenka agertzen diren lanen berri eta jakingarrienen laburpena emateko».

Jerezko ardoari laudorioak euskaraz

Jerezko ardoari laudorioak eginez idatzitako erdal poesiarik hoberenarentzat, 30.000 pezetatiko sariketa bat antolatu izan dau Jerezko «Junta oficial de la fiesta de la vendimia del Sherry» dalakoak. Gainera, ba dira beste bost sari ere, euskaraz, katalanez, balentzianoz, mallorkinez eta gaillegoz egindako poesientzat. Irabazle bakoitzarentzat, 5.000 pezeta, oroitgailu bat eta Jerezko jai horreetara joan-

etorria eta ostatua eskaintzen dira. Euskal poesiaren sariari dagokiozenak, Bizkaiko «Ateneo de Bilbao» elkartearen ardurapean dagoz. «Ardoaren hazañak» kantatzeko, «Txirrita»rik badago...

Euskaldunak langile Zamorako gartzelan

Zamorako espetxean diren zenbait apaiz euskaldunek —gehientsuak bizkaitarrak— hainbat kultur lan egin izan dabe euren ilunpe argitsuan. Apaizok, talde lanean ihardunik, ikus zer sail luzea jorratu daben, beste obra batzuen artean: A. Sastreren «Guillermo Tell» euskaratu, 8.000 hitzetako euskal hiztegi bat eratu, euskal atzizkien* eta aurrizkien* estudio luze bat atondu,* «Batasunaren Kutxa»ko aditza paradigma ikasterrazetan jarri, eta abar. Zenbaitzuk euskarazko lan berriak prestatzen ere ba dabilta, bereziki Xabier Amuriza, berau euskal nobela berri bat egiten ari baita. Gartzelako orma* lodiek ez dabe eten, euskal apaizek euren jaioterriari dautsoen atxikimendua.*

Bost lehendakari, bost irudi

Euskaltzaindiak, 1918. urtean sortu zanez geroztik, bost lehendakari izan ditu, bostok botoen bidez hautatuak: Resurrección María Azkue, 1919-1951.

Ignacio María Etxaide, 1952-1962.

José María Lojendio, 1964-1966.

Manuel Lekuona, 1967-1970.

Luis Villasante, 1970.

Orain dala denbora gutxi, bakoitzarentzat irudi eder bana jarri izan dabe Euskaltzaindiaren etxean, Bilbon, Ribera kaleko 6.ean. Izan ere, bakoitza bere tokian.

Elkanoren ibilaldi famatuaren 450. urteurrena

Aurten betetzen dira 450 urte, Elkano getariarrak lehen aldiz mundua inguratu ebaner geroztik. (Hazaña hori ohoratzeko, «Primum circumdedisti me» inskizioa jarri eben haren esku-duan). 450. urteurren hau ospatzeko, zenbait jaialdi zelebratuko dira Geterian eta Donostian.

«Oskorri», txapeldun

Joan dan ekainaren* hasieran, Iruinean, Euskal Herriaren hiriburuan ospatu zan Euskal Kantarien Lehiaketan,* «Oskorri» bilbotar taldea atera zan garaile, 16.000 pezetatako saria irabaziz. Bigarren saria irabazlegabe utzi eben epaimahaikoek.

Benito Lertxundi eta «Los Euskaros» Bolibarren

Benito Lertxundi eta «Los Euskaros» kantariak entzun ahal izan ziren Bizkaiko Bolibarren, San Joan gauean.

Benito Lertxundiri, berak kantatu nahi izan zituan kanta pila bat debekatu egin eutsoezan. Bolibar aldeko publikoa ere ez zan entzule bezala lar* ondo portatu, kantuen hitzak eta doinua, nork ganorez* entzun ez ebelerik, mendietan barrena galtzen ziren eta. «Los Euskaros» kantari taldea, Bizkai aldean berri xamarra, asko gustatu zan.

Baionako ikastolaren festa

Joan dan ekainaren* 25ean, Baionako ikastolaren festa zelebratu izan zan hiri haretako Teatro Handian. Jarraiko kantari honeek izan ziren, «Ori Bai» dantza taldearekin batera, festa horretan parte hartu ebenak: Añorgako «Ertizka» taldea, Estitxu Berazkoiztarra,* Lapurdiko Carrère eta Ospital bikotea («Lepoan hartu eta segi aurrera» kanta famatua abestu eben), Eneko Labeguerie —Kanboko alkatearen semea— eta Baionako «Pottoroak». 200 entzule bildu ziren.

«Estitxu» kantaria Donostian

Lapurdiko Berazkoitzen* jaio eta Bilbon bizi dan «Estitxu» (Estivaliz Robles-Aranguiz) kantariak Igeldoko «Ku» boitean esan zituan bere kantak, ekainaren* 28 eta 29an.

Lurdes eta Xabier Oñatin

Lurdes Iriondo eta Xabier Lete senar-emazte kantariak Oñatik institutoan entzun ahal izan ziren ekainaren* 28an, «Oñatz» elkarteak antolatutako kantaldi batetan.

«Nobela berria Hego Amerikan», Mikel Lasak, ETORen

Hau dugu, ETOR editorialak atera daukun liburu berria. Bertan Mikel Lasak Hego Amerikako idazle batzuen azterketa sakon bat egiten du, batez ere koloni garaiko literaturatik askatasunekora pasatzearen prozesoa aipaturik eta nolabait euskal literaturaren egoerarekin konparatu nahirik. Eskatzerakoan: ETOR, apartado 73, Bilbao.



EKONOMIA

Jose M. Aristrain industriariari omenaldia

Ekainaren* 26an, Madrilén, bazkari-omenaldi bat eskaini izan jako Jose M. Aristrain nafar industriariari. Industri arazoetan 40. urtea betetzen daua eta, Estaduko buruak emandako Lanaren Urrezko Medaila ezarri izan jako bazkari-omenaldi horretan.

Sail honetan lehenago aditzera eman genduan, Aristrain jaunari esker jasoko ei* da Irurtzunen enpresa berri bat, 4.500 milioi pezeta kostatuko dana. Era berean, «Fundación Aristrain» dalakoa ere —mila milioi pezetakoa— jaun beronek fundatu eban, diru beharrean aurkitzen dan jendearen promozioa zertzeko.

Bazkari-omenaldi hau, Licinio de la Fuente eta Gregorio López Bravo ministroek antolatua izan da.

C.V.F. Estaduaren eskuetan

C.V.F. (Compañía Vascongada de Ferrocarriles) izeneko euskal burdinbidea Estaduaren eskuetan utzia izan da. Ekainaren* 24ean, goizeko 9etan, Bilboko Atxuri estaziora sartu zan trenak, C.V.F. letren ordez, F.E.V.E. (Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha) ekarren lehen aldiz, eta makinaren muturrean lore txorta alegre bat. Makinistak deklaratu izan ebanez, «aurreko jabeek ba zituen zenbait hestuasun, eta oraingo jabe berriekin esperantza hobekak ditugu». Aipatu dogun memento horretan, han egoen Rafael de Guzmán jauna, C.V.F. elkartearen kontseiluko lehendakaria, eta Bilboko etxagunik* handienetarikoa. Estaduaren eskuetan «utzia» izan danez gero, ez dakigu, lehenago jabeek «saldu» ote daben ala oraingoek «erosi». Edozelan* ere, euskal izen eta izate bat gutxiago.

UNIBERTSITATEA

«Folklore y Sociedad», J. Lakuntzaren estudioa

J. Lakuntza, Bilboko Jesuiten Unibertsitateko ikasleak, «Folklore y Sociedad (un estudio sobre el folklore en la sociedad vasca)» izeneko idazlan bat presentatu dau «licenciatura» dalako examinetara. Makinaz, lerro bitara, 90 folio luzeetarikoetan, estudio diskutigarri bat eskaintzen dauku. Oteiza, J. A. Arza (eta beronen bitartez «Ez dok Amairu»), Estitxu, «Argia» dantza taldearen eta abarren kritika egiten dau. Estudioaren kezkarik behinenetarikoa* bezala, Euskal Herriaren industrializatzea aipatzen daua uste dogu, beronen eta euskal folkloreak artean diren

—edo izan behar leukeen— zerikusiak ikutzen ditularik. Euskal folkloreak arriskurik gaiztoentzat manierismoa eta mistizismoa jotzen ditu.

«Summa cum laude»

J. M. Apellaniz jakintsuarentzat

Juan Maria Apellaniz bilbotar jakintsu gazteak bere tesi doktora («La evolución de la cultura en el País Vasco desde la aparición de la agricultura hasta la época romana») defendatu izan dau Madrilén, eta kalifikaziorik gorena (**summa cum laude**) lortu dau. Juan Maria Apellaniz, euskal arkeologo azkar, jakintsu eta langileak, Joxemiel Barandiaran giputzaren lorratzei* jarraitzeko itxurak ematen ditu.

Neure ikasketak egiten nenbilanean, entzun izan neutson profesore honi esaten, berak ez eukala, orduan behintzat —eta harez gero ere lehengo xedean* irauten daua uste dogu—, euskara ikasteko asmorik, hizkuntza horren bidez ez baita kultura handirik kreatu, eta beretzat beste eginkizun batzuk garrantzitsuagoak zirela. Baina Apellaniz jauna oraindik gaztea da, hizkuntzak ikasten trebea; eta, euskara ikasteko gaur egun lehenagoko denboretan baino arrazoiz bereziago eta indartsuagorik somatzen dalarik, guk behintzat ez ditugu hori egingo dualako esperantzak galdu.

LIBURUAK

«Pintores Vascos, III», Madariagaren liburu berria

Luis Madariagak bere hirugarren liburu argitara eman berri dau, «Pintores Vascos, III» izenburuarekin, «Añamendi» etxearen bidez, aurretiko biak bezala. Euskaraz eta erdaraz datorkigun liburu honetan, euskal pintoreak aipatzen ditu, Fernando Beorlegirekin hasi eta Mariano Plazarekin bukatuz. Jarraian, Antonio Valverdekin «Euskal eskolari buruz» izenburuarekin 1966.ean emandako mintzaldia dakarsku, hau ere euskaraz eta erdaraz. Liburuak 185 orrialde ditu, eta 138 irudirekin hornituta dator.

«El arte del Renacimiento en Vizcaya», berriz argitaratua

Francisco Sesmero Pérez, Gernikako Juntaetxeko artxibozainak, bere «El arte del Renacimiento en Vizcaya» liburu (bere lizentziaturarako tesia), 1954. urtean agertua, berriz argitaratzekotan dabil. Pozarren* ikusiko geunke langile zehatz honen liburuak, batez ere edizio egoki eta merke xamar batean balitz.

«Tintinen gertaera arrigarriak» saileko liburu berri bi

Bilboko «El Mensajero» jesuiten argitaldaria, bere «Etor kultur bidean» elkargoaren prestutasunez, «Tintinen gertakari arrigarriak» izeneko sailean beste liburu bi atera berriak ditu: «Tornasolen arazoa» eta «Ottokarren errege-makila». Benetan argitalpen interesgarri bi, haurrek irakurgarri berezirik izan daien. Irudien ondoko irakurgaiak —tebeo* antzeko liburuak baitira— eskuz eta Gipuzkoako herri-euskaraz eginak, oso irakurterrazak eta txukunak dira, honelako kasuetan beharrezkoa dana. Ortografi aldetik, Arantzazuko erabakien aurretikoa dabile, zoritxarrez, noiz behinka hango arauak betetzeko seinaleak agertzen badira ere, 150na pezeta balio dabe; hau ere zoritxarrez. Inprimakuntza eta enkuadernazioa, egia esan, salneurriaren araberakoak dira.

«Semblanzas de tipos populares» edo noragabeko* liburuak

Julian Alegria bilbotar enpresarioak behinola* idatzi eta argitaraturiko «Semblanzas de tipos populares» liburuak, bigarren aldiz argitara eman berri dau Bilboko «Grafor» etxeak. «Tipos populares» dalako honeek, mende* honen hasiera inguruan Bilbon zelanbait* bizi izan ziren tipo xelebre batzuk dira. Hala, kasurako, Cabesita de ajo, Jodra, Angulita, Lorito, La Porroña... Alegria jauna limonada fabrika baten jabea zan, eta bere fabrikako produkto indargarean antzera eta itxura berean agertzen dauskuz gizon hareek, aire paternalista, kontserbadore eta moralista batekin. Bilboko txikiteroentzat omen* da, «los felices tiempos de la tasita de plata» gogoratu nahi dituan liburu epel hau.

«Euskal Herriaren Geografia», multikopiaz

Iñigo Agirre elorriotarrak Derioko apaizgai etxean Euskal Herriaren geografiari buruz emandako klaseetan jasoriko* apunteak, Adolfo Arejitak euskarara itzuli izan ditu, eta multikopiaz «ad usum privatum» argitara eman berriak dira. Iñigo Agirrek, geografia aztertzerakoan, ekonomiazko azpidurari* garrantzi handia ematen dautso. Kooperatibetan oinharritzen dau, batik* bat, Euskal Herriaren ekonomiazko etorkizuna. Bilbo Handia —hau da, Bilbo eta haren ingurua— gutxi aztertzen dau. Arejita gaztearen itzulpena zeharo ona da.

Leheen hitza

Ez dugu ahaztu behar, gure herria oso erlijiozale dela, oraino behintzat. Praktika bezala erlijioa baztertu duen gazte jendea bera ere, erlijio etapa oraindik ez du ongi superatu. Erlijio kutsuak astindu dituelakoan dagoenak ere, hitzetik hortzera Jainko hitza darabil, inertziaren poderioz. «Jarrera* anti» delakoan bizi da beste jende aintz* gurean, erlijioa dela eta. Eta jarrera hori jende heldugabearena da, erreakzio etapan bizi den jendearena.

Beraz, erlijio sail hau gogoan izan gabe, ezin dugu egin egiazko heziketa* lan askatzailerik. Gaur gure herrian ematen den erlijio giroarekin batere konforme ez bagara, soluziobide batzuk* markatuz joan behar dugu, edo eta, hobeto, perspektiba batzuk proposatuz. Federik ez duenak berak ere ezin du, herri giroan eta efikaziaz jokatu nahi badu, erlijio problema bazterreraz utzi. Fedea ba dugula uste dugunok, gutiago oraindik.

Uste dugu, gaurko erlijio giro alienagarriaren kontra-ko alternatiba bakarria ateismoa ez dela. Erlijiozko mundu horren kontra fededun ager gaitzkeela uste dugu batzuek.

Puntu honetan, oso memento historiko interesgarria izan daiteke gurea. Beharrezko dugu, jendea planteamendu ximpleetatik ateratzea. Gaur egun, gehienik, erlijiozaleak hitzez eta hortzez* eusten dio bere erlijiotasunari, erlijiozko berezko arrazoinengatik nahiz beste interes profanoagoren bategatik. Eta beste ertzean, erlijioaz nazkatu eta ateismoaren sailera iragan* direnek, fede planteamendu guztiei irri eta trufa* egiten diete, gehienetan. Jarrera primitibo eta akritiko hauk* eguneroko ogia dira gure artean.

Zenbait lekutan eta batez ere Hego Amerikan zehar egiten diren fede ikuspegi berriak eta iraultzaileak, teoria huts dira oraindik guretzat, eta gehienentzat horixe ere ez. ZERUKO ARGIAN eta beste orri bakar bat edo bestetan, zenbait kristau mugimendu berriren berri ematen da. Baina hemen bertan ez da oraino ezer horrelakorik hezurramitu. Urrutiko fenomeno ausartak* ditugu, hor nonbait gertatzen diren gauza bitxiak.

Gure herriko gazteria konprometatuari* begira, fedearen alternatiba proposatu nahi dugu. Frogatu* ez, proposatu bakarrik, bakoitzak libreki hauta dezan. Erlijioaz nazkatu den eta erlijioa gizartearen kontraktatzat dadukan jende gaztez beterik dago gure herria. Hori itsuenak ere ikus dezake. Fenomeno horren aurrean nostalgiaz, etsipenez,* minez eta kexuz* nigar egitea alferra da.

Baina uste dut, gure herriko Eliza konkretu honetan, gaurko arriskurik eta kalterik haundiena, fedea erlijio soineko zaharrez janzea eta estaltzea ez dela. Neo-erlijioa ikusten dut arrisku eta okerbiderik okerrera. Vatikanoko II.a irakurri eta hitzez hitz onhartu duen jendearen jarrera erreformista. Vatikanoko II.a abiapuntu bezala hartu beharrean, azken hitz bezala hartu duen jendearen erdibide delako hori. Edo eta, inoiz lurra ikutzen ez duen ezker mistikoa.

Guk ez dugu nahi lehena azal berriz. Ez lehengo erlijiorik, eta gutiago neo-erlijiorik. Fede biluzia bai. Ongi dakigu, beti eramanen duela erlijiozko zapitxoren bat soinean; baina zapi hoik* ahalik eta gutien izan daitezen saiatuko gara.

Gu ere erlijioaz nazkatu ginen, eta neo-erlijiorik ez dugu nahi. Baina geure urratsak* fede bidetik aurrera eman nahi ditugu, inoiz baino esperantza haundiagoz. Lehenaren nazka ahaztu zaiku, eta fede-esperantzen poza

deskubritu ere bai. Zergatik erlijiorik ez, eta fedea bai? Erlijioa lehenean, mitoan oinarritzen da, eta hasieraren itzulminez edo nostalgiaz bizi da. Fedea, berriz, utopiaren egarriz, gerora begira, mundu berriaren bila. Erlijioak mundu hau kontenplatzera eramaten du gizona, fedea mundu hau transformatzera. Erlijioa ordenazale da, fedea transformaziozale. Gizon erlijiosoa kontserbadorea izaten da. Fededuna, berriz, iraultzailea: «Ez zaitezte egoki* gizarte honetara» (Rm. 12,2).

[Baina erlijio hitzaz zer esan nahi dudan hobeki jakin nahi duenak, irakur beza E. Osaren «Bonhoeffer-en erlijiorik gabeko kristautasuna», *Erlijioa Hauzipean*, JAKIN sorta].

Oraingo erlijio eta eliz estrukturak hondo hondotik kritikatzeko eta baztertzeko ditugunok, batzuek uste dute, etsipenean erori* garela, pesimistak garela, gure fedea porrot egin duela. Hoiiek jakin bezate, oso besterik dela gure jarrera. Uste dugu, pizteko, lehenik hil egin behar dela. Lehengo modu zaharretara hil nahi ez duenak, ez du piztueraren esperantzarik. Eta puntu honetan datza,* hain zuzen ere, fedearen muina eta gakoa.*

Artikulu sail baten bidez, fedearen ikuspegi global bat ematen saiatuko naiz. ANAITASUNA hamabosterokoa delarik, ez da erraz izanen globaltasun hori ikustea, oso tartekatua azalduko baita. Dena dela, artikulu bakoitza besteekin erlazionatu gabe ez dezala balora kontseilatzen dut irakurlea.

Bide hau eramanen dut, guti gorabehera, zati bakoitzari zein luzera emango diodan ez dakidalarik:

1. Kristau maitasuna, politika bilakatzen* denean.
2. Fedea eta politika.
3. Fedearen eta sozialismoaren arteko kidetasuna edo.
4. Fedea eta iraultza.
5. Fedea eta klase burruka.
6. Fedea, gizartearen kritikagile.
7. Fedea eta utopia.
8. Utopia eta eskatologia.

Eta abar. Aski* dateke* hitzaurrez.

SAKONE

beza, **bei**
bezate, **beie**
dezake, **daike**
dezala, **daiala**
dezan, **daian**

diete, **dautsee**
dio, **dautso**
diot, **dautsat**
zaiku, **jaku**, zaigu



Colchineria Vasca
LARRAURI Y GARAY

TAPICERIA - ALFOMBRAS - DECORACION

C. DE LARREATEGUI, 8 - TELEFONOS 21 60 38 - 23 59 21 - 24 59 28

BILBAO - I

X. Kintanaren "Behin batean"

Kintana *Beste izakia* («Euskal-Elerti 69») fikzioko nobelaren egile da, eta liburu honetan antzerako ipuinekin datorkigu.

Liburuak zazpi ipuin ditu. Lehen laurak aintzinako Grezia, Ekialde* eta Ameriketako ohitura eta sinesmen zeharretan oinharriturik. Ipuinok, politikak izanagatik, aski* ilunak dira, Sisyforena alde batera utzirik. Hau, europarragoa delako edo, gure mentalitatetik eta gure egoeratik konprenigarriagoa zaiku. Eta ez, euskara joria ez darabilalako, gaiek berekin duten iluntasunagatik baizik.

Bostgarrena, Ukronia, aski anakronikoa, guztietan irristakorrena. Humore ezentsuak, maiz,* barre algarak eragin dauzkit. *Euzkeltzaindiko* gertaeretan beretan ere ez gutti. Ipuina, *euzkeltzale* eta euskaltzale arteko burruka izanen da funtsean. Bi gramo L.S.D.k egin erazitako zorabioan edukitako ametsetatik sortua, ikusten denez. Gure artean berbakizunik gehien sortuko duena, noski. Eta bidezkoa da, hemen, neure aburu* hauetan, ipuin honi toki gehiago ematea.

L.S.D.ren efektoak neronek ez ditut probatu. X. Kintanak berak ere ez, seguru asko; eta, probatu baditu ere, zorabioa iragan* ondorean, konorta* behar bezala zuelarik idatziko zuela nik uste. Fikzioko ipuin bat egiteko atxakia besterik ez da izan Xabierrena. Baina oso gaizki planteatua, eta bere ahoberokerietan neurririk gabea. Garbizaletasuna alderdi batean jartzen du, bere arrazazaletasunaz eta faszista izateaz bat eginik; eta herrikoitasuna proletalgora errepresentzen duen aldean, mentalitate aurrerakoiz. Alderdi bata eta bestea, H letraz ere aurrez aurre jartzen ditu.

Gezurra dirudi, memoria hain laburra izatea edo gaurko zaharren gaztaroko historia ez ezagutzea; zeren,* pittin bat ezaguturik, konturatuko baikinake, baldin erreflesionatzeko ahalmenik badugu. Haiek, besteak beste, Hitler eta haren lagunak kontra ihardun zuten; eta, gaur holakorik idaztean, ba dirudi, haren lagunak alde gabiltzala. Haiek ekarri daukuten estruktura politikoan oinharriturik, haik* juzgatu nahi baldin bada.

Garai hartan, herri-euskararen mugimendua hasita zegoen. Alde batetik, Gorosabel liberalak uxatu zuen bertsoarritza mugimendua hasi zen, Lekuona eta Aitzoli esker. Bestetik, J. Urkixo ari zen literatura zaharreko lanak argitaratzen eta baliatzen. Eta, azkenik, alderdi eskuindar hartako Altubek *Erderismos* eman zeukun.

Lotsagabeko ukamenik egin nahi ez badugu, aitortu beharrean gara, egungo argibideen sustraiak haiei zor dizkiegula. Beraz, Kintanak hauzitan jartzen duen arazo hori, gehienbat ere, adin kontua da —jakina, beti eta toki guztietan agertzen diren estremistak eta zentzugabeak aparte utzirik—. Baina politena hau da, eta bearbada Xabier Kintanak ez dakiena: Garai hartan, alderdi komunistak ateratzen zuela *euzkera*-erdaraz aldizkari bat, *Erri* izenez (ez Herria, baizik Erri, erre gangardunarekin*). Eta, proletalgoaren aldizkaria bazen edo ez bazen, *Alderdi* bezain *euzkera* garbiduna.

Ikusita dago, orduan, Altube agertu arte behinik behin, politikaz karlismoarekin kutsatuak bakarrik zirela, euskara jatorra erabiltzen zutenak. Eta hoiien influentzia nekez ikus zitekeen Xabierrek adierazten daukun Ukronian, zeren,* gerra bestaldera joan balitz, C.N.T.ko proletari amurratuek guztiak akabatuko baitzituzten. Edo, bestela,

alderdi eskuindar hartakoek, salbatzaile bezala, beren buruen arrisku handirekin jarkiz,* zerbait egin ez balute, zenbait* presondegitan egin zuten bezala.

H kontuan, berriz, ez dut uste, proletalgoak bultzaturik ihardun zutenik, Baionan 1964.ean eta Ermuan eta Arantzazun 1968.ean bildu zirenek. Bestalde, Jon Mirandek, faszista izanik (?), beti idatzi zuen euskara jatorrez eta H-z. Eta, bestalderago, gezurra badirudi ere, Baionako erabakien ondorean ere, *Arragoa* aldizkariak, proletalgoaren izenean, oraindik neologismoz jositako garbizale-tasunari jarraitzen zion, titulua bera ere erre gangardunez jarritz.

Literaturan, fikzioak ere bere helburu batzuk* betetzen ditu, eta Ukroniak ez dut uste horrelakorik duenik, alderantziz ez bada behintzat. Nire honek helbururik betetzen duen? Ba,* bai, Xabier; eta osasungarria gainera, kontaminazioen kontra eta egiaeren alde.

Azken ipuin biak politikak dira. Azkenaurrekoa zerbait astuna eta aspergarria bere hasieretan, baina oso ona, egungo fikziogintzetan ohi den erakoa. Azkena oso bikaina, fikzio hoik* alde batera uzten dituen.

JUAN SAN MARTIN

daukute, **dauskue**, digute
dauzkit, **daustaz**, dizkit
dizkiegu, **dautseguz**, diozkategu
zaiku, **jaku**, zaigu

zeukun, **euskun**, zigun
zion, **eutson**
zitekeen, **eiteken**



Emakume, gizonetako eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonetakoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak

HURI ZAHARRA

"Casco Viejo"

BILBO

Arantza Urretavizcaya

Donostian eta bazkal ondoren egin dugu elkar hizketa hau. Josu Torre eta Ibon Sarasola ere gurekin dira. Hau ez da ohi bezalako elkar hizketa, bazkal ondorengo solasaldi bat baizik. Ezagutzen ez dutenentzat esanen dut, Arantza Urretavizcaya gaztea dela, oso gaztea, eta dotorea* gainera. Zimela da, eta oso biziak ditu begiak. Oso agudo* hitz egiten du. Eskuaz mintzatzen da mihiaz hainbat. Baina hona hemen haren zenbait pentsamendu:

—**Poema bilduma*** bat bidali duzu «Agora» sariketara. **Zergatik bildu eta eraman dituzu?**

—Dirua irabazteagatik. Berrogei mila pezeta irabazteagatik. (Hau ez dakit publikagarria den ala ez).

—**Sariketen kontra ez duzu, beraz, ezer?**

—Ez. Ezer ez. Hasieran pentsatu nuen, «Agora» zela, eta abar. Baina gero pentsatu nuen, alderdi guztietako dirua beti ere diru dela. Gero jakin nuen, Lete eta besteak sarituak izan zirela, baina hori geroztik. Nik benetan dirua irabazteagatik eraman nituen. Beraz, ez dut ezer sariketen kontra. Baina, halaz ere, lotsagarria dela iruditzen zait, Euskaltzaindiaren sariketa batetan hogeitabost mila pezeta besterik ez ematea. Ene ustez, nobela batek sekulako lana suposatzen du, eta bost mila duro ez da ezer. Poesia, erraza da egitea: gai bat hartzen duzu, eta tira!, bukatzen denean, kito! Baina prosak lan gehiegi eskatzen du.

—**Idazleek nahiko problema larria dute diruaren aldetik. Orduan niri iruditzen zait, sariketak literatura promozionatzeko era bat direla.**

—Bai. Ez dut uste, idazleek beren lanak argitaratzeko problemarik dutenik. Editorialek originalak falta dituzte. Sariketek izena... ez dute izenik ematen. Dirua litzateke haietara presentatzeko arrazoina.

—**Zure poesiari gagozkiolarik, esplika ezazu poesia horren genesis.**

—Elaborazioa denbora gutian burutu dut. Baina gaiak, askotan eta luzaroan bueltaka eta bueltaka erabiliak nituen. Barnean nituen aspaldian. Formaz ez dakit, baina gaiz aski* landuak nituen neure poesiak.

—**Nik uste dut, gure artean hain poesia ugaria sortzeak, gure literaturaren subdesarrollo bat adierazten duela.**

—Zurekin nago horretan. Eta, gainera, profesionalizazioa falta zaiku. Nik poesiak egin baditut, gauza batzuk paperean jarri nahi nituelako izan da. Prosaz egitea ez zitzaitekan bururatu ere; askoz ere zailagoa delako. Nik ba ditut ipuinak, baina ez dizkiot inori utzi, ez eta utziko ere. Zailagoa dela iruditzen zait prosa. Literaturan gaitzatanok beti orduz kanpo ari gara. Ez dugu astirik, lau zorientzuk izan ezik. Poema bat memento batetan burutzen da. Prosa askoz ere gehiago landu behar da.

—**Beraz, poesia egin duzu, erraza delako bakarrik? Edo eta, aitzitik*, esanbehar bat zeure barruan nabaritzen* zenuelako? Barne sena* adierazteko?**

—Esanbeharra bai, horrelako zerbait ba nuen; baina, guztitara ere, errazago deritzat poesiari. Gero, ba*... nik ez dut musa eta horrelako gauzetan sinesten.

—**Poetak ez garenoi, zailagoa dela iruditzen zaiku, poesia bat egitea prosa baino. Prosan, ideia bat botatzen duzu besteren segidan, eta nolabait lortua duzu; eta tira!**

prosa, osatua duzu. Batik* bat orain arte rimak garrantzi handia zuen poesian. Gero Baudelaire eta antzekoak hasi ziren bertso libre delako hori egiten, eta orain ba dirudi, edonork egin dezakeela poesia.

—Baina, hor ere, bertso libreak bere ritmoa eskatzen du. Nik teknika kontuan ez dut ideia handirik, baina bertso libreak ere ba du teknikarik.

—**Poesiaren definizio bat eman behar bazenu, nola definituko zenuke poesia?**

—Ba*... ez dakit nola erantzun horri.

—**Zuretzako behinik behin, zer da poesia?**

—Niretzako... zerbait esateko era erraz eta atsegina. Baina ez zait iruditzen, etorkizun handia duenik genero literario bezala.

—**Zergatik ez?**

—Begira! Nik ez dut neure poesiaren etorkizunean sinesten. Lehenik, ez dudalako konfidantza handiegirik poesiaren beraren etorkizunean. Baina batez ere, ene poesia liriko delako, eta lirikotasuna beherantz doan edo behean dagoen talde edo klase baten seinale bat bezala hartzen badugu. Eta argi dago, lirikotasuna egoera ezin hautsi baten ondorio dela. Poesiaren bidea, ene ustez, epikotasunean datza*. Eta Euskal Herrian nik ezagutzen ditudan poetetarik (euskal poesia ez dudala oso ondo ezagutzen aitortzen dut), Aresti da horretarako indar aski duen poeta bakarra, egoera positibo baten itzalean* noski. Gure poesia gehienak lirika kutsu bat du. Inoiz konprometatu* bada ere, beti da lirikoa. Eta ez zait iruditzen, poesia tresna habila denik, gaurko zenbait* gai erabiltzeko. Arte bezala, again* bai. Baina niri iruditzen zait, kantak duela garrantzia, eta etorkizunik duen generoa dela.

—**Ba ditugu bertsolariak. Eta haiek kantan sustraitzen dute beren poesia.**

—Bertsolariak ez dira olerkariak*, jeneralki behintzat. Idatziriko bertsoek ba dute poesi alderdirik; baina bat batean jartzen direnak ez dira poetikoak.

—**Epikotasuna diozunean, zer esangura ematen diozu hitz horri? Agian, epikotasuna aintzinako gauzen kantatzean datza?**

—Ez. Aintzinakoak ez. Oraingoak. Gauzak kontatu behar dira, eta ez norberarenak bakarrik (norberaren betiko fantasmak). Istorioak esan behar dira, poesi moldean. Agian, frantsesek egiten duten bezala: gertakariak kantuetan molda. Poesiaren bidea kantak liriteke. Baina Euskal Herrian, zoritxarrez, baliorik ez duten letrak hartzen dira kantetarako, gure poeten lanez baliatu gabe.

—**Argitaratuko dituzu poema hau? Uste dut, lotsa duzula.**

—Lotsa bai. Lehenik, beldurra ematen dautaten kontuak direlako; eta pentsatu nuen, paperean jarriz gero, ez zeutabela hainbeste beldur emanen. Nik ez nizkion inori erakutsi nahi. Baina Iboni erakutsi nizkion, zeren* eta berarengan fidatzen bainaiz, askotan esan dautalako, egin dudana xarra dela; eta harritu egin nintzen, onak zirela esan zeutanean. Baina uste dut, nahiko subjetoa dela, poema bat ona den ala ez esatea.

—Poesia gehiago eginen duzu?

—(Barre egiten du). Ez dut uste. Edo agian eginen ditut; baina inoiz ere ez argitaratzeko asmoz. Prosa landu nahi dut.

—(Torrek). Ez ote du merezi, poesia egiterik «el arte por el arte»?

—Ez. Inoiz ere ez. Izan ere, poesia bat noiz da arte? Hain subjeliboa da poesia!

—Poesiaren definiziorik zaharrena «ekintza» da (etimologia, «poieo»). Beraz, ekintza bat dela esanen zenuke zure poesia?

—Ez. Niretzako ez litzateke ekintza bat. Bibentzia bat esanen nuke hobeto, edo beste maila batetako ekintza bat.

—Praktika pertsonal bat beharbada?

—Praxis teoriko bat litzateke nonbait. Eta praktika hori osatzean, orduan bakarrik, aurkitzen dut neure burua.

—(Ibonek). Zure poesian, Frantziako zenbait abeslariaren kutsua edo oihartzuna* nabaritzen* dut nik.

—Ni oso frankofilo naiz, eta egiazki aitortzen dut hori. Brell, Barbara, Ferrat... asko gustatzen zaizkit. Barbara memoriaz ezogutzen dut. Agian bai nabari* daiteke ene poesian haien oihartzuna. Aragon-ek ere kutsatu duke* ene poesia.



Poesia asko argitaratzen da gure artean, edo poesia da behintzat gehien argitaratzen den genero literarioa. Uste dut selekzio bat hedatuz* joan behar dugula, gure literatura urria aberastuz doan neurrian. Kriterio hau begien bistan dudalarik, uste dut, Arantza Urretavizcaya-ren poemak argitaratu beharrezkoak direla, eta hau bi arrazoinengatik: onak dira, eta berriak gainera.

Bai, Onak dira Arantzaren poemak. Benetako sen* poetiko bat adierazten dute. Denok dakigu zein subjeliboa den, poema bat ona ala xarra den esatea. Ez dago arau* segurik, poema bat ona den ala ez esateko. Nik bakar bakarrik esan dezakedana, zera da: asko gustatu zaizkidala. Eta, gainera, berriak dira.

Poesia pertsonal baten aurrean gara. Poesi mota hau ez da hain landua izan gure artean. Ni ez naiz harritzen, egileak lotsa duela esaten daukunean. Nolabait ere esateko, bere biziaren zati batzuk gauzatzen ditu bere poemetan. Alderdi honetatik, eta zinezko* poeta guztiek legez,* arrisku bat du. Agian, Lete, Azurmendi eta M. Lasak egin dute poesia pertsonalik; baina ez da, Arantzak egin duenaren gisakoa. Beharbada, formaz landuagoak dira aipaturiko poeta hoiengan. Arantzak, ordea, eta berak horrela aitortzen du, ez du forma alderdia gehiegi landu; eta hau ez diot, akats bat salatu nahirik bezala, ez. Ez duela landu esatean, zera esan nahi dut: ez duela artesianiazko lan literario bat egin, zaren* eta, aitzitik*, haren poemak landuak baitira oso eta denbora luzean zehar. Nirekiko uste dut, askotan eta luzaroan errepikatu* dituela, bere poemetan jarri dituen hitzak. Errepikatu diot, zeren eta frase bakoitzak gorputz bat baitu eta bere ritmo nabarmena.

«Kozkor gris
borroso eme bat
baizik».

Hori dioenean, adibidez, perpaus* bakoitzak bere nor-tasuna du; eta poema guztia honela ardatzen da, gogorazio klaro —grafiko esanen nuke— eta garbien arauera*. Psikanalisi ihardun batetan esan daitezkeen perpausak dira. Fraseek ez dute berez nortasunik, plastikoa ezik; baina, poema osoki hartuz gero, hitz bat ere ez da sobera*, eta denek zehazki argitzen dute poema osoaren esangura.

Esaera eta perpaus hoik oposatuak aurkitzen dira inoiz, eta sinkroniaren mekanismoaz biziki animatzen dute poemaren abiadura. Sinkronia aipatu dut eta ez us-tekabean, zeren eta historiari —denborari hobeto— atxikirik* baitira haren poemak. Denboraren sinbologia darabil, gainera. Eta imaginak nahiko landuak dira. Inoiz frase berdinak edo antzekoak jartzen ditu, poemaren barnean plano desberdinak bereiziz. Bereiziz eta opo-satuz, eta hortik datorkio poemari bere dinamika historikoa. Plano hoik* ziklo hertsia* dira; baina, bata besteari oposatuz gero, egitura historiko bat konposatzen dute.

Bestalde, Arantzak emakumearen psikologia aber-ratsa agertzen dauku. Eta alderdi honetatik, Amaia La-sarekin ba du paretasunik. Baina biek, bereziki landua dute emakumearen arima. Bai formaz eta bai mamiaz, Amaia ekintzaren mailan mugitzen da, eta plastikaren ardura* gehiago du. Arantzak, berriz, barrunbe psikolo-gikoa hatzematen du*, eta poemaren haria isuri bezala egiten du.

Arestik 64.eko belaunaldia* markatu du (une hone-tan, ba dakit oso lanjeroso dela generazioaz hitz egitea; baina hobebereiz...). Agian, beste generazio bat sor-tzen ari zaiku euskal literaturan. Lertxundi hor dugu, eta parean jarriko nuke nik Arantza Urretavizcaya. Bestal-de, Ibon Sarasolaren influentzia nabaritzen* dut, aurkez-ten* ari naizen poema hauetan. Ibon Sarasolaren «Poe-magintza» ere generazio honetan sartuko litzateke hobe-ren. Poesiak hautsi egin du zenbait gate astunegi. Poe-sia hau ez da hain funtzionala. «Naif» kutsu gehiago du, pertsonal delako. Eta gizonaren barrunbeak ez du muga jakinik.

«Duela urte gutti,
edo ez hain gutti,
lau ia,
San Pedro bezpera batetan,
gaueko hamarrak bost gutiagotan
espero izateko esperantza
hil zeutaten.

Kronika bat dirudi. Baina egunero dira «gaueko ha-marrak bost gutiago»ak, eta egunero gertatzen dira an-tzekoak. Pertsonak, bera irauten du. Poesiak hargatik ez du edaderik; poetak bai, ordea. Eta agian Arantzak poesia gehiago eginen du. Ez da ugaria izanen; baina barrunbeak ez du mugarik, eta denbora han pausatzen da.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

dauku, dausku, digu
daut, daust, dit
dautate, dauste, didate
dezake, daike
dezaket, daiket
diozu, dautsazu
dizkiot, dautsada
nizkion, neutsazan
zaiku, jaku, zaigu
zait, jat
zaizkit, jataz
zeutaten, eusten, zidaten
zitaitan, jatan, zitaidan

Sindikatoak Rusian

Zer joera dute, zeintzuk eginkizun betetzen dituzte Sindikatoek Rusian? Laburki bada ere, gai hau erabiliko dugu gaurko lan honetan.

SINDIKATOEN JOERA

Hasiera batean, kapitalisten aurrean langileen interesak defendatzeko sortu ziren Sindikatoak. Behetik gora moldatu ziren, alderdi politikoetatik at,* langileriaren beharrianak betetzeko. Zerbait egin behar zen, kapitalisten muga gabeko diru goseari neurri bat ezartzeko, bai eta langileen lanarentzat alokairu* zuzenago bat lortzeko.

Baina Sindikatoen joerak funtsezko aldakuntza bat izan du, alderdi politiko bakar bat duten Estatuetan. Hauetan, hasierako Sindikatoen oinarrizko baldintza, hots,* behetik gorakoa izatea eta alderdi politikoetatik kanpo egotea, aldatu egin da. Estatu hauetan, Sindikatoa goitik behera antolatzen da, eta alderdi politiko bakarrak kontrolatzen du, Estatuan agintea dutenen laguntzaile eta tresna bihurtuz.

SINDIKATOAK RUSIAN

1917. urteko iraultza handiaren aurretik, gobernariak susmo txarrez begiratzen zituzten Sindikatoak.

Gero gauzak aldatu egin ziren, eta, iraultzaren ondoren, Sindikatoek garrantzi handiago bat hartu zuten Rusiako bizitzan.

Boltxebike Alderdiaren X. kongresuan (1921.ean) eta XIV.ean (1925.ean), argi eta garbi aitortzen da, «Sindikatoen eginbehar nagusia eta behinena»* langileak defendatzea dela. Baina erabaki honek ez zuen luzaro iraun.

Joera honen funtsezko aldakuntza 1929. urtean dator, lehen plangintza kinkenala egin zenean. «Sozialist ekin tzaren egoera honetan, Sindikatoak lehen tokia du, produkzioa jaso ahal izateko burukatzen dutenen artean».

Planak seinalaturiko produkzio mailak lortu behar ziren, eta Sindikatoak Estatuaren tresna bihurtu ziren. Lantegietan diziplina gogortu egin zen, gaztiguak gehitu, inspektzioak ugaritu.

Beraz, orain Sindikatoen eginbehar nagusia ez da langileen interesak lantegietan defendatzea, Estatuak seinalaturiko produkzio maila lor eraztea baizik.

Sindikatoen xede* honek, Stalinen heriotzerarte, 1953. urterarte iraungo du Rusian.

MARX ETA LENINEN ERITZIAK

Ginebrako* kongresuan, 1866. urtean, Marxek hau esan zuen Sindikatoei buruz: «Nazioarteko Elkartean eginkizuna zera da, langileek berek sorturiko mugimenduak ugaritzea eta batzea, eta ez ezertariko* dotrina sistematik haiei proposatzea edo onhar eraztea».

Hiru urte geroago, Basileako* kongresuan, Marxek berak hau esan zuen: «Sindikatoak, langileek berek egindako lanetik sortu dira, kapitalaren aginte despotikoaren kontra burukatze».

1920. urtean, Sindikatoak Estatuaren menpean jarri nahi izan zituen Trotskik. Lenin asmo horren kontra agertu zen. Honen eritziz, Sindikatoen betebehar nagusia langileen interesak defendatzea zen, komunist Estatuak burokraziaren eraginez egin zitzakeen abusuen kontra.

STALINEN ONDOREN

Stalinek aginte gogorrez kontrolatzen zuen bai Rusia eta bai hainbat Estatu komunista.

Haren heriotzarekin biguntze bat etorri zen. Eta, biguntze hori nabari* sentitu zen nazioetan, Sindikatoak

aldatu egin ziren, berriro langile elkarteak sortuz: Hungarian 1956. urtean, Txekoslovakian «Pragako udaberrian» 1968. urtean, Polonian 1970.ean. Eta ez ahantz* Jugoslavia.

Beraz, Estatuaren kontrola bigundu denean, Sindikatoek beren hasierako xedera* jo dute: langile elkarteak sortzera, langileak berak antolatzaileak izanki.

SINDIKATOEN XV. KONGRESUA

Berrikitana* egin da Moskun Sindikatoen XV. kongresua.

«Gure Sindikatoak —esan du Breznev-ek— sozialismoa nagusitu den Estatu batean ari dira lanean. Langileen aldeko burrukan, gainditua* dugu jadanik* defentsa funtzioa. Sindikatoek —egia da— defendatu egin behar dituzte langileak administrazioaren gehiegikeriaren eta burokraziaren desbizioen kontra. Baina haien eginkizuna ez da hemen amaitzen. Antolatu egin behar dute sozialist lehiaketa,* eta gidatu langileria, produkzioa bai kantidadez eta bai kalitatez gero eta haundiagoa izan dadin».

Hemen Breznev-ek eginbehar bi ezartzen dizkie Sindikatoei: langileen defentsan aritzea,* eta produktibitatearen laguntzaile izatea.

Esan nahi ote du honek, Rusian ere Sindikatoen plan teamendua zuzenagotuz doala? Izango ote dira aurrerantzean langileen benetako defendatzaile?

Hori, hitzez gabe, ekintzez frogatu* beharko dute etorkizunean.

XABIER DEUSTUA

Froga ezazu zuk zeuk
BYASS 96
ona dela izenez eta izanez



GONZALEZ BYASS
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

eror - jaikika

Telesforok diosku:

«Baldin laguna erortzen bazaik,
har ezak lepoan eta segi
aurrera».

Kuestionea da zein den
laguna:

Ni banintz,
ni naiz,
inork ez nau hartzen.

Hainbeste urtetan ibili naiz
eror-jaikika...

«Bida-ertzean ez marrubi,
ez belar gizenik...»

Bakarrik,
noizean behin,
hondakin triste hau,
nerau...

Inork hartu banau,
hi izan haiz...
«Melitxu Basurtuko,
piku melatua»,

ene

SAMAR,
SAMAR,
SAMAR
itana.

Mintza nadin

hitano.
Hi gabe,
zeri helduko?

«Sakoneko lainoz gora...»
Ene euskarri bakarra.

Inork ez diost:
Haik* gora.
Bakarrik:
Gora.
Aberria.

Non nago ni?

GABRIEL ARESTI




**¡Elija
sus
vacaciones!**

estudie
y compare:
esta selección
de
nuestra oferta

¡Más de 1.000 viajes
organizados
están a su disposición!

¡Consúltenos!



Aukera eizuz

zeure oporraldiak

SALIDAS DESDE BILBAO En avión (Salidas todos los jueves)

- MALLORCA - 8 días, desde 3.750; 15 días, desde 5.200 Ptas.
- COSTA DEL SOL - 8 días, desde 4.200; 15 días, desde 5.700 Ptas.
- COMBINADA MALLORCA - COSTA DEL SOL - 7 7 días, desde 6.350 Ptas.

SALIDAS DESDE MADRID En avión (Consulte salidas)

- LAS PALMAS - 8 días, desde 5.950; 15 días, desde 6.650 Ptas.
- TENERIFE - 8 días, desde 6.800; 15 días, desde 7.800 Ptas.
- COMBINADA LAS PALMAS - TENERIFE - 7 7 días, desde 7.900 Ptas.
- ALFOMBRA MAGICA (MARRUECOS):
 - TANGER - 8 días, desde 5.800 Ptas.
 - COMBINADA TANGER - CASABLANCA 4 4 días, desde 7.800 Ptas.

EXCURSIONES DESDE BILBAO

En autopullman de lujo (Consulte salidas)

- MONASTERIO DE PIEDRA (3 días) 2.550 Ptas.
- LOURDES - (3 días) 2.850 Ptas.
- ASTURIAS - PICOS DE EUROPA (3 días) 3.175 Ptas.
- COSTA MEDITERRANEA (9 días) 9.150 Ptas.
- ANDALUCIA (7 días) 9.550 Ptas.
- CANTABRICO - RIAS BAJAS (9 días) 10.450 Ptas.

Jakingarri gehiagorako dei egiguzu

VIAJES BILBAO, S. A.

AGENCIA DE VIAJES G. A. U. - Nº 211
para su comodidad

Alda. de Urquijo, 19 - Tlf. 31 75 05 - 31 75 95

Kontzientzia primarioa

Kontzientzi maila honen ezagugarri batzuk hauk dira, laburki emanak:

a) Gizonaren interes nagusia, biologi sailera biltzen da. Jatorria, odola, abizena,* senitartea, jaioterria, hauk dira balore nagusiak, hau da bizi duen orbita bakarra. Eta mundutxo horrek ba du sakratutasun bat. Orbita hau erlatibizatzeak eta hortik pixka bat irteteak* ba du sakrilegio kutsu bat.

b) Behar bejetatiboei erantzuteak ematen ditu lanik haundienak. Zer jan, zer edan, zer jantz, hauk dira kezka nagusiak, kontzientzia primarioa duenarentzat. Bere interesa horretara zentratua dagoelarik, behar hoietarik kanpo berari dagozkion giza problema larriak ez ditu somatzen.

Beraz, bere ezagutza saila oso mugatua dago. Hesi hitxi* batean bizi da. Judizioak egitea oso zail gertatzen zaio.

c) Ikuspegi historikorik ez du. Mundua gauza burutu bat da. Ez da prozesu bat, eginez doan zerbait. Mundua goiko norbaiten edo norbaitzuen *posesioa* da (beste munduko jauntxoena nahiz mundu honetakoena). Batzuen *posesioa*, ez denen *zeregina*.

Ez du historiari ezagutzen, naturaleza ezagutzen du, honen derrigorrezko legeekin. Beraz, naturalezaren kolkoan, honen jirabiraz, itzulminez edo nostalgiaz bizi da, hasiera hartako paradisuaren irrikaz.*

Nola naturaleza, hala gizona ere. Gizona burutua dator mundura amaren sabeletik. Gizona biologiak eta arrazoimenak definitzen dute: «arrazoimendun animalia», eskolastikako definizio zaharrak dioenez.

Eta hori, jaiotzez dakar mundu honetara gizonak. Beraz, gizona jaiotzez da pertsona. Geroko geroan, munduko ibilaldian ikutu batzuk hartuko ditu, heziketa* bat izango du, zirkunstantzia batzuek moldatuko dute zerbait. Baina funtsezko aldaketarik ez du izango, kalitatezko saltorik ez du emango.

Kontzientzia primarioak ikuspegi biologikoa du gizonaz, ez oraingo antropologiaren ikuspegi kulturala. Gaur gizona ez du animalia eta arrazoimenaren uztarri abstraktuak definitzen, erresponzabilitateak, askatasunak eta esperantzak baizik. Gorputza eta arrazoimena jaiotzez hartzen ditugu. Askatasuna eta esperantza, berriz, kulturaren fruituak dira, hots,* historiarenak.

d) Kontzientzia primarioarentzat, jainko indarrek, indar izkutuek,* indar anonimoek darabilte mundua. Gizartean gertatzen dena ere, «halabeharrez» gertatzen da. Kontzientzia honek ez du uste, mundua oso beste modu batera izan daitekeenik. Naturaleza halabeharrezkoa den bezala, gizarteko estrukturak eta bizitza ere halabeharrezko dira.

Esperantzaren mundua ez du deskubritu oraino, mundu berririk daitekeenik ez du ikusten, ez du egiazko utopiaren erakarpenik.* Beraz, giza mailaren ezagugarri nagusia falta zaio.

Kausen eta ondorioen arteko erlaziorik ez du ikusten. Ez daki, gauzak zergatik gertatzen diren gertatzen diren bezala.

e) Indar izkutuek darabilten mundu hitxi hau, mundu mitifikatua da. Zer esan nahi dugu horrekin?

Mundua gure eskutan egon beharrean, guk kontrolatu ezin ditugun indar anonimoen eskutan badago, guk ez dugu zeregin haundirik mundu honetan. Mundua gizonarentzat *ikuskitun* izango da, eta ez *eginkitun*.

Mundua halabeharrek edo destinoak gidatzen badu eta ez guk, ezin dugu munduaren martxa aldatu. Horregatik, mundu mitifikatuan gizona espektadore bihurtzen da. Mundu mitifikatua *kontenplatu* egiten da. Ez da funtsezko galderarik egiten, ez da azterketarik egiten, ez da ezer transformatzen. *Kontenpla*, ez *transforma*.

Hauk dirateke, kontzientzia primarioaren karakteristikak nabarmenenak. Kontzientzia hau duen gizonak eta herriak, «gauzko esistentzia» bizi du oraino, dio P. Freirek.

Kontzientzia hau herri primitiboetan eta industrializatu gabeetan ematen da, batez ere. Beraz, ez da zuzenki gure Herriaren kasua. Hemen zibilizazioa, industria, makina sartu dira. Indar izkutuetan (mundutik kanpotikakotán, alegia*) gero eta gutiago sinesten dugu. Kontzientzia post-primarioan sartu samarrak gara. Horregatik, bigarren etapa horretan gehiago luzatuko naiz, hor ikusten baitzikiot nik oraindik zangoak eta burua Euskal Herriari. Baina kontzientzia primarioa guztiz gairatu ote dugu gero?

a) Itzulminez edo nostalgiaz, lehengo Urre Haroren* bati begira bizi den jenderik asko ezagutzen dugu. ezagutu. Naturalezaren zilbor* hestea ez dute eten, historiaren harian ez dira sartu. Historiaren haririk ez dute ikusi. Linea ukatzen dute, betiko jirabira entronizatzen. Ustekabeek, absurdoak, salto itsuek, atzerakadek gidatzen dute, hoienez eritiziz, mundua. Ikuspegi lineala guti indartu da, oraindik, gure artean.

b) «Arbola santuek», «lur bedeinkatuek», abizen luzeek, odol garbiek eta abarrek, gero eta sakratutasun gutiago duten arren, oraindik ere horren aztarnarik* ba da.

Baina, dena den, euskal biologiaz baino euskal kulturaz gehiago arduratzen* gara gaur. (Horretaz zerbait esanen dut, bigarren etapaz aritzerakoan*).

Ba da, hala ere, kontzientzia primarioaren kapitulu bat, Euskal Herriak oraindik benerezio haundiz betetzen duena. Interes bejetatiboen kapitulu duzu, hain zuzen ere. Zer jan eta zer edan. Eta, horrekin batera, zenbat jan eta edan ere bai, *zenbatak* garrantzi handia baitu kontzientzi maila honetan.

Elkarte gastronomikoz josita dago gure Herria, eta oraindik jostenago* ari da. Horren ondoan, oso kultur elkarte guti. Oraindik ere nahiko haurtzaroen edo haro primitiboan gaudela esan behar euskaldunok, gure tripa-zentrismoa ikusirik. «Urdail fasea» ez dugu superatu.

Inkesta* zehatz batzuk egiteak ez leuegu batere kalterik ekarriko: Zenbat diru ematen da extrako jan-edan-entarako eta zenbat kultur beharretarako?

Tripazentrismo hori gairatzea, kulturazentrismoa lantzea eta, areago,* kontzientzia primarioaren markak borratuz joatea, ez da izango heziketaren egitekorik makalena.

Biologi interesetatik kultur interesetara eramango gaituen heziketa izanen da heziketa askatzailea.

EUSEBIO OSA

dizkiot, dautsadaz
gaude, gagoz

leuegu, leuskigu, liguke
zaio, jako

Etikarik ez denean

Ethos hitzak, «harresia»* esan nahi du greko zahar-
rean. «Toki» ere esan nahi du. Baina, mendebaldeko*
kultur historian zehar, hitz honek «moral» esangura hartu
du. Gaugeroran, tokia zena, ohitura («mores») bilakatu*
da.

Nik ez dakit zergatik; baina, tokiak huts egiten due-
nean, ohiturak nagusitzen dira. Zera adierazi nahi dut:
alegia,* gizonak bere erroak eta sustraiak galtzen ditue-
nean, usadioaren arauera* konportatzen dela. Gizona
bere etxean (harresian) dagoenean, fierki* portatzen da;
eta haren jokabideak beti berriak eta jatorrak dira, hots,*
etikoak dira konportamenduak. Baina gizona deserroturik
aurkitzen denean, «tokirik» ez duenean, ohituren arauera
mugitzen da, hots, moralki. Eta egun* euskaldunok ez
dugu tokirik, edo eta dagokigunik behintzat.

Morala diodanean, zentzu peioratibo batetan erabil-
tzen dut. Etikaren hondakina da morala. Etikaren arauera
hedaturiko* konportamenduak libroak eta errotuak dira,
historikoak hain zuzen. Etikak ba du denborarik; moralak,
ordea, ez du historiarik. Ohiturek ez dute denborarik;
denbora badute ere, sasoi mitiko batetakoa da.

MITOLOGIA POLITIKOA

Egungo mitologia politikoa, mitologia moral bat da
batik* bat. (Euskal intelektual gehienok apaizgai edo
apaiz izanak gara; eta fenomeno honek ba du zerikusirik
gure politikagintzaren moralismo honetan). Sistema poli-
tikoa gehienek eredu edo modelo bat ba dute. Egun, bi
modelo ditugu klaroenak (modeloak beti dira bikoitzak:
ona / xarra. Morala da hori ere). Bi modelo hauk kapita-
lista eta sozialista dira.

Sistema bakoitzak bere ereduaren aplikazio xuxen eta
garbia izan nahi luke. Politikoez egiten dituzten apolo-
getika eta autojustifikazioak, eredu baten arauera eginak
dira. Bakoitzak izan nahi du erabateko* kapitalista edo
sozialista. Baina hemen mitologiaren arlora irixten* gara.

Adibidez, egungo sistema politikoetan, nola sozialis-
tetan hala kapitalistetan, XVIII. mendeko* ideiek garran-
tzi aparta dute. Frantziako ilustrazio edo «Argien haroak»
berebiziko* arrakasta* suposatu zuen ondorengo politi-
kagintza guztietan. Egun, XVIII.eko ideia asko erabiltzen
dugu. *Askatasuna, anaitasuna, berdintasuna...* Frantziako
errepublikaren slogan izan ziren hitzak, erabat* xertatu-
rik* ditugu geure mitologia politikoan. Moral politikoa
berezi baten lekuko* ditugu hitz hoik. Hitz hauek ez dute
denborarik. Eta iruditzen zaiku, hitz hauk* betidanik pre-
ziatuak eta onhartuak izan direla. Baina hitz hoik arke-
tipoak dira, eta mitologia politikoa berezi batetan bakarrik
uler daitezke.

Hitzek beren esangura galdu dute, eta, edozein siste-
ma politikotan erabiliak izan arren, ez dute deus* esan
nahi. Mitoak dira. Moral baten sostengu bilakatu dira.
Ohiturak dira.

EUSKALDUNON OHITURAK

Euskal ideologiaren historian zehar maiz* aldatu dira
hitzak. Baina esangurak gutti aldatu dira. Azalak berritu
dira, baina muinak ez. Hain zuzen ere, XIX. mendeko eta
XX.aren hasierako kontzeptualizazioetatik oso hurbil* ga-
biltza oraindik euskaldunok.

Egun salatu beharrezko euskal mitologia, XIX. men-

dekoa dugu oraindik. Askok, lehen *raza* hitzak zuen esan-
gura ematen diote *ethnia* hitz modernoagoari. Lehen «lagi
zarrak» deitzen genuena, orain «goiko lerroak» dira.

Agian,* hizkuntza dugu euskaldunok kontzepturik era-
gileena. Baina hizkuntza ere moral eta erlijio bat bezala
erabiltzen dugu. (Garbiak eta zikinak dira, euskaldunak
eta «mordoiloak»). Hizkuntzaren funtzionalizazioari bel-
dur diogu. Hizkuntza sagaratu da; eta ohituren arloan
mugitzen gara. Chao, Astarloa eta Kardaberazek hizkun-
tzaz iharduten zutenean, erlijioski eta moralki iharduten
zuten. Hizkuntza (beti ere abstraktuki) lege zaharretarik
bat da. Ohitura moraletarik bat.

Etikarik ez du hizkuntzak. Euskararen etika bere fun-
tzionaltasuna izanen litzateke. Guk, ordea, moral mailan
dihardugu. Ez gara gai eta gauza,* premia eta fenomeno
berriei erantzun berriak emateko.

SOZIALISMOA ETA MORALA

Adibidez, *sozialismo* hitzarekin gertatzen dena. Denok
iharduten dugu sozialismoaz; baina inor guttik adierazten
du, hitz horrekin esan nahi duena. Nehor* guttik frogatzen*
du ekintzetan hitz horren esangura. Gure artean
dotrina mitiko baten antza du zenbaiten sozialismoak.
Sozialismo hitza, geure mitologia politikoaren zutabeeta-
rik* bat dugu.

Zenbaiti nik eskatuko nioke, ez dezala hainbeste hitz
egin sozialismoaz, eta frogatzen dezala areago* bere uste
hori ekintzetan. Edo, guttienez, frogatzen dezala bere sozia-
list izatea, egiten dituen analisisetan. Praktikarik at,* mi-
toak dira nagusi.

Sozialismo hitza, zentzurik gabeko hitza bilakatu zai-
ku. Hitz hutsa da. Hitz hau xapel bat da, edozein buru
estaltzeko gai den xapela.

Gainera, sozialismoaz hitz egiten duten zenbaitek,
humanismo arrunt* baten mailan iharduten dute. Moral
maila batetan. Eta erabat* bazterturik dute ekonomi al-
derdia. Gure artean ugaria da delako sozial-humanismo
hori.

Politikaren arloan ez da aski,* mito batetik bestera
pasatzea; aitzitik,* ekintzari atxiki* behar zaio politika-
gintza. Ekintzak mitoa apurtzen du. «Ismo» guztiek segu-
rantza bat ematen daukute. Mitologia baten barnean ga-
ren bitartean, seguru gara. Baina ekintzari ekiten dionak,
ez du mitoaren babesik. Ekintzari atxikirik dagoenak,
kreatu egiten du; geroa sortu. Eta honi deritzat etiko.

Moralean, pentsamenduak eta intentzioak, ekintzak
bezainbat* garrantzi du. Moralista gehiegi dugu geure
artean. Fantasmak, ez daudenean, sortu egiten dira. Fan-
tasmak (mitoak) beharrezkoak dira, norberaren seguran-
tza eta uste ona gordetzeko.

Euskaldunok etikaren bat frogatzen badugu, ez dadila
izan denborarik gabekoa, edo eta beste sasoi batetakoa.
Etika, ohituren bizkarretik lortzen da. Gizonarekin batera
osatzen da etika. Eta gizonik ez da; gizona «egin» egiten
da. Bilakatu. Euskal Harresia ha dugu; baina, agian,*
oraindik ez dugu euskaldunik.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

daude, dagoz
daukute, dauskue, digute
dezala, daiala
dio, dautso
diogu, dautsagu

diote, dautsoe
nioke, neuskio
zaiku, jaku, zaigu
zaio, jako

Haro helenistikoa

Haro* helenistikoa Alexandro Handiaren ondoko hiru urteetan osatzen dute. Haro honetan, nahiz klase diferentzia areagotzen* den, etorkian* oinharritzen ziren abantailak* bukatu egin dira, aristokrazia zaharraren boterea deusezten* delarik.

Ekonomiak kapitalismo internazionalaren maila irixten* du. Klase gidari burjes bat sendotzen da agintean, bere botere ekonomikoan soilik oinharrituz. Estatu berriak, beste ezer baino areago,* razionalismoa faboratzen du. Razionalismo hau bizitze kulturalaren maila guztietara heltzen da. Zientzia eta arte lanak, nazioen gaintetik dau den erakundeez* zuzentzen eta gobernatzen dira. Ekonomia razionalki organizatu duten oinharriak dira zientzia eta artea ere organizatzen dituztenak, espezializazioa eta talde lana sortuz. Inbestigazio zentroak, museoak eta bibliotekak kreatorien dira. Iragana* ezagutzeko eta aurreko mendeetako* arte lan eta estiloak ulertzeko eta miresteko joera nabari* da. Honen ondorioz eklektizismoa azaltzen da, hots,* estiloen nahastetik sortzen den estiloa, jadanik* Euripidesen drametan mostratzen hasi zena, elementu dramatikoak lirikoekin eta erretorikoekin nahastuz.

Haro helenistikoan biografia eta autobiografia, maila goren batera heltzen dira. Garaiko gizartea gero eta areago arduratzen zen gizona ezagutzeaz, batez ere konkurrentzia ekonomikoaren burrukan gero eta areago baliatu behar delako ezagutze horretaz. Psikologiari buruz mos-

tratzen den interesa, beste bi jeneroren sortzailea da: nobela eta komedia «burjes»arena. Haro helenistikoak sortzen ditu historia asmatuak, beren gaia irakurlearen eta entzuleen munduan hartzen dutenak, eta ez leiondaren mundu hurrunean.


Giro honetan sortzen dira Menandroren komediak. Komediota pertsonaiak erdiko eta beheko klaseetakoak dira; eta gaiak, maitasuna, dirua, heredentziak, haur abandonatuak, aita galdu eta berraurkituak. Amodioa ez da inolaz ere falta. Honetan ere, Euripides da haro helenistikoaren teatroaren aintzindaria.* Haren aurretik ez zen inoiz erabili maitasuna joko dramatikoan, eta berari dagokio berritasun honen aitatasuna. Dena dela, haro helenistikorarte ez da amodioa egintza dramatikoaren eragile bilakatzen.*

Komedia burjes honen alderik burjesena gai berri hau dateke,* ez baitira amoranteak jainkoen aurka burrukatzen, mundu burjesaren mekanismoaren aurka baizik: kontra jartzen diren gurasoen aurka, kontrario aberatsen aurka, karta gezurtien eta testamentu berezien aurka. Guzti hau bizitzearen «desliluratze»* eta razionalizazioari lotzen zaio, moneta ekonomiari, garaiko espiritu merkataritari, zeinak* ez baitu ezer jakin nahi jainkoez eta heroez. Azkenean, orain lortzen du burjesiak bere teatro propioa izatea.

IBON SARASOLA

Legezkoa da gaur eguneko emakumeak bere bankoan kontu irekia edukitzea.

Lehen, diru aurreratuaren kontua aurrezki gutun batean gordetzen zuen bezala.



Banco de Bilbao

Banko honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUA

Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak

ABAGADUNE, **coyuntura, ocasión.**
 ABANTAIL, **ventaja.**
 ABIZEN, deitura, **apellido.**
 ABURU, eritzi.
 AGIAN, nonbait, aurki, eiki, hurrean, beharbada.
 AGUDO, arin, laster.
 AHAL-OROTAKO, **todopoderoso, omnipotente.**
 AHANTZ, ahantzi, ahantzu, ahaztu (**inperatiboetan**).
 AINITZ, asko.
 AINTZINDARI, buruzagi.
 AITABITXI, **padrino, parrain.**
 AITZITIK, **al contrario.**
 ALEGIA, **a saber, es decir, esto es.**
 ALOKAIRU, aloger, **salario, jornal.**
 AMILDU, **precipitarse.**
 ANGELU, Lapurdiko, **Anglet.**
 ARABERA, **conforme, según.**
 ARAKATU, aztertu, ikertu.
 ARAU, **norma, regla.**
 ARAUERA, **según, conforme.**
 ARDURA, axola, arta.
 ARDURATU, axolatu, arta hartu.
 ARE, **aún, hasta, encore, jusque.**
 AREAGO, oraindik gehiago.
 AREAGOTU, oraindik gehiagotu.
 ARITU, ari izan, ihardun.
 ARRAKASTA, **éxito, succès.**
 ARRAS, guztiz, oso.
 ARRUNT, **común, ordinario, corriente.**
 ASKI, nahiko.
 ASTOLOGO, astoen bitzta estudiantzen duena.
 AT, kanpo, landa, lekora, **fuera.**
 ATONDU, antolatu, eratu.
 ATXIKI, **adherirse.**
 ATXIKIMENDU, **adhesión.**
 ATZIZKI, **sufijo.**
 AURKEZTU, presentatu.
 AURRIZKI, **prefijo.**
 AUSART, **valiente, intrépido.**
 AZPIDURA, **infraestructura.**
 AZTARNA, aztarren, arrasto, seinale.
 BA, bada, **pues.**
 BADERIZT, erizten badaut (badit), **si cree de mí, si opina de mí.**
 BARIK, **en vez de, au lieu de.**
 BASILEA, **Bâle.**
 BATIK BAT, bereziki, batez ere.
 BATZUK, zenbait. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).
 BEGIRATU, zaindu, jagon.
 BEHINEN, **primario, primordial.**
 BEHINOLA, **en otro tiempo, anteriormente.**
 BELAUNALDI, **generación.**
 BERAZKOITZE, Lapurdiko **Briscous.**
 BEREZIKO, **pintiparado, de perlas, à propos, choisi.**
 BERRIKITAN, berriki, oraindik oraintsu, aurtemeen, arestian.
 BEZAINBAT, beste, haina.
 BILAKATU, bihurtu.
 BILDUMA, **colección.**
 BIPIL, **valiente, resuelto.**
 BOKART, antxoba.
 BULEGO, **oficina, bureau.**
 DARRAIO, jarraitzen zailo. (**Aditz hau intrantsitiboa da**).
 DATEKE, da nonbait.
 DATZA, **yace, consiste, está.** (Etzan aditzaren forma).
 DESLILURATZE, **desencantamiento.**
 DEUS, ezer.
 DEUSEZTU, ezereztu.
 DOHAN, **gratis.**
 DOTORE, apain.
 DUKE, du nonbait.
 EDOZELAN, edonola, nolanahi.
 EGITUR, egitura, **estructura** (hitz elkarteetan).
 EGOKI, egokitu, **acomodarse** (sujuntiboetan).
 EGUN, gaur.
 EHIZA, **caza, chasse.**
 EI, omen.
 EKAIN, **junio.**
 EKIALDE, eguzki alde, **Este.**
 ENDELEGUTSU, **inteligente.**

ERABAT, guztiz, zeharo.
 ERABATEKO, **completo, total.**
 ERAKUNDE, **organismo, institución.**
 ERAKARPEN, **atracción.**
 ERHI, **dedo, doigt.** (ERI, gaixo).
 EROAN, eraman.
 ERORI, jausi.
 ERREPIKATU, **repetir.**
 ESKUALDE, **comarca, región.**
 ESTEKATU, lotu.
 ETORKI, **origen, abolengo.**
 ETSIPEN, **resignación.**
 ETXAGUN, **propietario.**
 EZELANGO, inolako.
 EZERTARIKO, **de alguna clase.** (Ezezko esaldietan, **de ninguna clase**).
 FIERKI, **resueltamente.**
 FROGANTZA, **prueba, demostración.**
 FROGATU, **probar, demostrar.**
 GAINDITU, **superar.**
 GAITZ, eskerga, **enorme.**
 GAKO, kako, **clave.**
 GANGAR, **cresta.**
 GANORE, ganora, kanore, **fundamento, fuste.**
 GATAZKA, burruka, **lucha cuerpo a cuerpo.**
 GATIBATU, **encadenar.**
 GINEBRA, **Genève.**
 GOGARAKO, gustuko.
 GURA, nahi, gogo.
 HAIK, hareek. (**Haiek** aktibo, **haik** pasibo).
 Jaiki hadi.
 HAINA, beste, bezainbat.
 HAINAKO, besteko, bezainbateko.
 HARO, **época, periodo.**
 HARRESI, seto de piedra, **clôture en pierre.**
 HATZEMAN, **captar.**
 HAUk, honeek. (**Hauek** aktibo, **hauek** pasibo).
 HEDA, hedatu, zabaldu (**potentzialetan**).
 HEDADURA, **expansión, extensión.**
 HEDATU, zabaldu.
 HEGAL, ala.
 HEGATS, **pluma.**
 HERRA, **rencor, aversión.**
 HERTSI, hitxi.
 HEZIKETA, **educación.**
 HIRIGINTZ, hirigintza, **ordenación urbana** (hitz elkarteetan).
 HITXI, hetsi, hertsia, **cerrado, fermé.**
 HOIK, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).
 HORTZ, hagin.
 HOTS, **a saber, es decir, esto es.**
 HURBIL, hur.
 IAIO, bikain, **excelente.**
 INKESTA, **encuesta.**
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRITXI, **alcanzar, atteindre, llegar, arriver.**
 IRRIKA, gutizia, **ansia, anhelo.**
 IRTEN, urten, atera, jalgia.
 ISTRIPU, **accidente.**
 ITAUNDU, galdetu.
 ITZAL, babes.
 ITZEL, gaitz, eskerga, **enorme.**
 IZKUTU, **oculto, caché.**
 JADANIK, ya.

JARKI, iharduki, **resistir, oponerse.**
 JARRERA, **postura, actitud.**
 JASAN, **soportar, aguantar.**
 JASO, hartu.
 JAZO, gertatu.
 JOSEFINA, asto baten izena.
 JOSTENAGO, josiagotzen.
 KEXU, **descontento, inquietud.**
 KONORT, zentzu.
 KONPROMETATU, engaiatu, **comprometerse,** s'engager.
 KRESPA, **crepsón.**
 LAR, larregi, gehiegi, sobera.
 LARREGIAN, gehiegian.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEHIAKETA, **competición, emulación.**
 LEKUKO, testigu.
 LORRATZ, **huella, vestigio.**
 MAIZ, sarri.
 MENDE, **siglo.**
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente.**
 NABARI, **evidente, notorio, patente;** nabaritu (**potentzialetan**).
 NABARITU, **sentir, percibir.**
 NEHOR, inor.
 NORAGABEKO, **sin orientación, sin rumbo.**
 OIHARTZUN, **eco.**
 OINESTRUKTURA, **infraestructura.**
 OLA, fabrika.
 OLERKARI, **poeta.**
 OMEN, ei.
 ORMA, paret. (HORMA, hielu, glace).
 PAIRAGAITZ, pairatzeko (sufritzeko) gaitz.
 PERPAUS, esaera.
 POZARREN, pozik.
 SEN, **instinto.**
 SINATU, izenpetu, **firmar.**
 SOBERA, lar, larregi, gehiegi.
 SUZTAGARRI, **aliciente, estímulo.**
 TAMALGARRI, lastimagarri.
 TEBEO, **cómic.**
 TENORE, ordu, garai, denbora.
 TRUFA, burla.
 UHIN, olatu.
 URRATS, pauso.
 UZTA, **mies, cosecha, moisson, récolte.**
 UZTAIL, **julio.**
 XEDATU, **fijar, determinar, disponer.**
 XERTATU, **injertar, greffer.**
 ZEDE, helburu, asmo, **fin, objetivo.**
 ZEINA, **el cual, lequel.**
 ZELAN, zela, nola.
 ZELANBAIT, nolabait.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZEREN (ETA), ze, **pues.**
 ZERRILOGO, zerrien bitzta estudiantzen duena
 ZILBOR HESTE, **cordón umbilical.**
 ZINEZKO, benetako.
 ZORU, zola, **suela, semelle.**
 ZUTABE, **columna, pilar.**

Amaia Etxeberria, «Miss Vascongadas 1972»

Ekainaren* 24ean, Irungo «Uranzu» pelotatokian egindako «Miss Vascongadas 1972» lehiaketa, Amaia Etxeberria donostiarrak irabazi eban. Sari bezala, txapel bat jarri eutsoen buruan.

«Zorion baten zainak», Gorka Trintxerpek, ETORen

Zortzi sailletan banaturik, 48 poema ematen dauzkigu Leitzako Patxi Zabaleta gazteak liburu honetan. Haietarik batzuek azalpen bat dute, hitz lauez* egina. Denean, egilearen psikologi egoera agertzen dela dirudi. ETOR, apartado 73. Bilbao.

Euskal asto-lasterrak

11.

Gure eskritorerik (eskritore, Jainkoarren, ez idazle!!!) bokazionatuenak ZERUKO ARGIAN euskaldunen klasifikazio zoolojiko bat egin zeukun, orain asko ez dela. Harrentzat bi euskaldun klase dago, bi totemek gordetzen gaituen euskaldunok: bufalo eta termita.

Euskaldun-bufalo, haren gogarakoak* direnak dira. Berak maitatzen dituenak, Manitu ahal-orotakoaren* zelai ferdeetara eramaten ditu, eta gainerakook, zerbitzari apal eta apur hau kapitain jeneral naizelarik, termita edo inurri edo komejenen gradoan ezartzen gaitu.

Partikularzki bi euskaldun-bufalo aipatu zuen bere sententzia solemne hartan. Bere poesiaren hegal* eta hegats* fantasmetan Manitu gorenaren belar gizena hausnartzen imajinatu zuen bi adardun ezin-ahaztu: Azkue eta Baroja. Paradisu totemikoetako bake miragarria ez dadila inola ere turba, bufalo hoiien adar burrukarekin; ez dezatela bi hoiak hemen behereko haien gatazka* arrabiatua kontinua; bestela, termiton ifernu iluneon are* trankilago biziko baikara. Ez diezola berriz ere Barojak Azkueri esan: «Zuek, euskaldunok, mahometano mota bat zarete, galtzarpean Elkorana eraman beharrean, Aita Asteteren katixima daramazuenak». Eta, honi arrapostuz, ez diezela eska Azkuek lau Diputazioei (eta zergatik ez Paueko prefektuari?) ezein Elkartate Filarmonikotan Barojaren deserritze eta desterritzea, «por hijo espúreo». Baina hala gertatzen balitz, alegeraki errezibituko genuke termiton mundu nardagarrian.

12.

Nik dakidanez, Luis Mitxelena astologo* famatuak estudiatu zuen lehenez asto mota hau. Espezimen honek arras* maiz* Euskal Herrian, baina bai Kristau Herri guztian ere, bere habitat egokia aurkitzen du. Hau ez dakit nola katalogatu behar dugun, baina haren karakteristikak hauk* dira: Bere fedea munduan dagoen bakarra izan irste du. Hortik, esaten zuen Mitxelenak, sortu da «euskaldun fededun» slogan zaharra. Baina slogan hau erabiltzen dutenek (gaur ere asko erabiltzen da, eta lepa-ondoan astintzen gaituzte, lehengo zaharrek kristautzat hartzen ez zirenei gurutze santuaren egur benedikatuaz lepa-hezurra jotzen zieten herra* eta gerra berberarekin), apropos ignoratzen zuten, edo ez zuten inola ere jakin nahi, zenbait* fede diferente egon dela Euskal Herrian, beren fedea ba zituztela hala nola Eneko (edo Iñigo) Loiolakok, bai Joane Berazkoizkok* eta Tomas Meabekok ere. Nik ere, askok bestela baderizt* eta azken urteotan epeltzen hasi bazait ere, neure fedetxoa ba dut, krespa* artean harri preziatu baten moduan amoroski gorde eta begiratu* dudana.

Euskal Herriaren inguruko asto lasterraldi honetako egungo etapan, bukaerara zortzi minututako abantailarekin ailegatu dena, ez da Euskal Herrikoa. Lehengo egunean esan zeutan neure bigarren alabak, bere irakurgaitako liburuan bere aitabixiaren* poema bat zetorrela, eta gainera lektura erlijiosoan artean, eta ea nola izan litekeen hori posible, baldin eta berak (umeak) segurantz osoa basedukan Blas de Otero ez dela inola ere eliz-zale edo jainko-zale.

Hartu nuen liburua, eta poema hura leitu nuen. Poema zaharra zen, nik ere behin euskaraz argitaratua, eta bertan gure Orozkoarrak bere fedeari egiten dio aipamen. Baina, alafede! Oteroren fedea, nahiz eta Eiffel-go dorrea baino fermuago eta iraunkorrago izan, ez da fede erlijioso

bat. Meaberenarekin edo enearekin zerikusi haundiagoa du, Loiolakoarenarekin edo Berazkoizkoarenarekin baino. Gure euskal eskoletako metodoekin sartzen gara batzutan (*ikastola* hitza usatzea ez zaiku gustatzen, errazago baitakarkigu gogora eskola bat baino zentral termiko bat); baina erdal eskoletako profesional diplomatuen artean, ez du efektibitate handirik frogatzen,* «Naya» liburuetako laugarren kurtsua preparatu zuenak.

13.

Astakeria hau lehen aipatutako astologoak sujeritzen da. Kontuan eduki behar da lehenbizi, Mitxelena oso zerrilogo* trebea ere ba dela, eta terreno honetan jabe den jakituriaren frogantza* handi bat ematen dauku bere azken liburuaren asken bukaeran bertan, han seinalatzen baitauku erhiarekin* (eta batzutan ez da hain edukazio xarrekoa), galtzontzillo arrosa-kolorekoak tirante beltzez estekatzen* dituen bat.

Zoologo sozialen artean, hala ere, hainbat estudiatu ez den gauza, hauxe da: zoolojia ekolojikoaren brantxa desberdinek (*brantxa* erabiltzen dut, *adar* edo *beso* edo *parte* ez erabiltzearen), elkarrekin dituzten loturak. Kezkaturik ibili naiz ni azken aspaldion harreman ezezagun hauetaz; eta ondorio batetara ailegatu naiz, azken fin batean, zerrilojiak astolojiarekin duen loturaz, behintzat. Hauxe da: erri batek gizon argi eta prestu bat asto bihurtuko du, baldin eta deskuido batetan harrapatzen badu.

Hala gertatu zitzaion, orain zenbait urte dela, Jiménez Martos ezagunari, Aguilar-ek publikatutako «Poesía Hispánica» bere liburuarekin. Bertan, guri baimenik eskatu gabe eta gainera «copyright» delakoa jarririk, In-txausti, Irigoien, Lekuona, San Martín, Sarasola eta enekin batean, poeta berri baten lehen euskal poesia agertzen da. Gehiegizkoa iruditzen zait benetan, tintazko bataioa antolojia batetan hartzea. Ziri ederra sartu zion gure (zuen!!!) Santiago Aizarnak Jiménez delakoari. Aizarna oso endelegutsua* da, eta, dirudienez, uhin* gaitzen* artean ederki daki igeritan; baina, adarren artean gabe, belarrien artean toreatzeak eta banderillatzeak ez dirudi hazaña ohoragarria.

Urte hartan, Aretan (Arabako Aretan, ez Bearnokoan), asto-lasterra Josefinak* irabazi omen zuen.

14.

Urrezko luma bat Pelay-Orozkoentzat. Eta ez da oilar gangarra,* lumak aldatzen dituelako, ez. Duda bat ere gabe, lehengo euskalduna oraingoa baino nobleagoa zen. Lehen euskaldunek irrintzi egiten zuten; orain arrantza.

Baina letra bakar bategatik ez naiz Aizarnarekin haserratuko.

Pelay-Orozko jaunarekin egon nintzen azkenean (fotografia bat, ez *argazki!!!* bat, argitaratu zen aldizkarietan —bi asto irrintzika— eta asko eta asko molestatu zen jendea), ez nion ezkerreko belaunaren barren aldeari begiratu, ea hark ere, nik bezala, Balaam-en marka zorionekoa daraman. Txuleta bat Azpeitiko Artetxerenean, baietz.

MALGIZON ARESTIAR